



Atzerriko hizkuntza era digitalean ikasteko eta irakasteko eta ikasleen truke birtualerako gidalerroak



Lan hau lizentzia honen babesean dago: Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa.
Lizentzia horren kopia ikusteko, bisitatu <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/deed.eu> webgunea
edo idatzi bat bidali helbide honetara: Creative Commons, PO Box 1866, Mountain View, CA 94042, USA.

Edukiak

DIGI-LINGO testuingurua	4
DIGI-LINGO hastapena	6
DIGI-LINGO gomendioak	9
DIGI-LINGO gidalerroak	10
Gidalerroa: Atzerriko hizkuntzako irakasleen ezagutza handitzea ikaskuntza sakonagoan eta XXI. mendeko gaitasun digitaletan	10
0	
Gidalerroa: Atzerriko hizkuntzako irakasleei profesionalki garatzeko aukera nahikoa eskaintzea irakaskuntza erdipresentzialari dagokionez, bai eta hizkuntzen irakaskuntzarako online tresna eta plataforma birtual egokienak ere	13
3	
Gidalerroa: Ikasleak inplikatzeko atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzaren diseinuan eta egikaritzean, baita ebaluazioarekin lotuta ere	15
5	
Gidalerroa: Atzerriko hizkuntzako irakasleen gaitasunak handitzea ikasleen autoerregulazioa lantzeko, arreta berezia jarrita helburuak jartzean, bereiztean, autokontrolan eta autoebaluazioan	17
7	
Gidalerroa: Atzerriko irakasleen gaitasunak handitzea kultura demokratikoa lantzeko, kulturartekotasuna ardatz hartuta	19
9	
Gidalerroa: Trukerako plataforma birtualak erabiltzera animatzea, parte hartzea, elkarreragitea eta kulturartekotasuna lantzeko	21
1	
DIGI-LINGO eskola politikan	26
DIGI-LINGO gogoeta	29
DIGI-LINGO gidalerroak literatura azterketarekin lotuta eta atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntzaren DIGI-LINGO esparrua	33

DIGI-LINGO testuingurua¹

Noretzako dira gidalerroak? ²

Testu hau zenbait interesdunentzat da. Hasteko, idealki, eskoletan zenbait gidalero, tresna eta plataforma espezifiko erabiltzen hasiko diren edo ikasgelako jarduna hobetzeko eta jardun hori zuzena dela baliozkotzeko erabiliko dituzten atzerriko hizkuntzako irakasleentzat. Horiez gain, zuzendariek, eskola politikako taldeek eta hezkuntza komunitateek zeregin erabakigarria dute atzerriko hizkuntzako irakasleei ahalik eta hezkuntza digital eta birtual onena emateko³. Horiek dira, beste gauza batzuen artean, behar besteko profesionalizaziorako aukera eman behar dutenak. Eta azken baina ez hutsen, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza digital eta birtuala soilik loratu daiteke gobernuaren hezkuntza politikak arlo horretako berariazko betekizunei behar bezala heltzen dienean.

Atzerriko hizkuntzako irakasleez ari garenean, hiru xede talde bereizten ditugu, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza digitalarekiko ohikotasunari dagokionez, hau da, horien heldutasun digitalari dagokionez:


- **Erabateko hasiberriak**⁴: Ikastetxeko IKTen garapen planarekin bat egiteko konbentzitzea edo/eta IKTen erabileran trebatzea behar izan dezaketen atzerriko hizkuntzako irasleak. Nekez erabiltzen dute Internet irakasteko eta ikasteko iturri egokiak bilatzeko.
- **Erabiltzaileak**: IKTak dagoeneko modu eraginkor eta egituratuan erabiltzen dituzten atzerriko hizkuntzako irakasleak. Oinarrizko irizpideak erabilita iturri egokiak identifikatzeko eta ebaluatzeko gai dira.
- **Aitzindariak**: IKTak modu eraginkor eta egituratuan erabiltzeari buruz gehien dakiten atzerriko hizkuntzako irakasleak dira, eta naturaltasunez asko esperimintatzen dute tresna eta ikuspuntu berrieekin.

¹ Grafikoa Go!-ren barneko diseinu grafikoko taldearen eskutik.

² Zalantzarik gabe, hori "continuum" bat da, eta helburua da pausoz pauso joatea, trebetasun maila handiagora. Argitze aldera, xede taldea hiru talde horietara mugatuta dago.

³ Ikus "Eskola politika" kapitulua.

⁴ [Hezkuntza Digitalaren Ekintza Plana \(2021 -202 7\): DigCompEdu](#)



Zer dago gidalerroen funtsean?

- Herrialde/eskualde bakoitzaren **atzerriko hizkuntzako curriculum helburuak**: komunikaziokoak, lexikokoak, gramatikalak eta batzuetan baita jarrera helburuak ere;
- **Kontzientzia**, atzerriko hizkuntza ikasteko jarduera digitalean ikasleak inplikatzeko eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko dauden erronka ugariri buruz;⁵
- **Kalitate handiko atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntza digitala lortzeko anbizioa**.⁶

Nolakoak dira gidalerroak?

- **Argiak**: Hizkuntza gai zabalei aplikagarriak eta sozialki inklusiboak;
- **Mugagabeak**: Ez daude mugatuta atzerriko hizkuntza, hizkuntzaren ikaskuntza maila edo herrialde/eskualde zehatz batera;
- **Hautemangarriak**: Ikasgelan berehala zabal daitezkeenak eta ulergarriak.

⁵ [GO! Pro - Gepersonaliseerd samen leren - De 5 bouwstenen](#)

⁶ E-lang: Pedagogical approach for the use of digital tools and resources in the context of language teaching and learning: [ECML-Programme > Programme 2016 - 2019 > Digital literacy](#): Substitution, Augmentation, Modification, and Redefinition model (SAMR) e.g. Hamilton, E. R., Rosenberg, J. M., & Akcaoglu, M. (2016). The substitution augmentation modification redefinition (SAMR) model: A critical review and suggestions for its use. TechTrends,

60(5), 433-441. [SAMR](#)

DIGI-LINGO hastapena⁷



Kapitulu hau proiektuaren testuinguru, helburu eta ambizioei buruzkoa da.

Badirudi atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza gainbehera datorrela **goi mailako bigarren hezkuntzan**.⁸ Ikasle gutxiri interesatzen zaizkie hizkuntza ikasketak eta PISA txostenen emaitzek erorketa askea izan dezakete.⁹ Honako hauei zor zaie hori:

- Benetako komunikazio aukerarik ez izatea?
- Ikasleek jada ez irakurtzea ez beren ama hizkuntzan¹⁰ ez atzerriko hizkuntza batean?¹¹
- Ikasleek komunikatzeko beldur handiegia izatea?¹²
- Jende gehiegik ikustea hizkuntzak tresna huts gisa?
- Adimen artifizialeko aplikazioek¹³ nabarmentzeko «hizkuntza kilometrajea» egiteko beharra deuseztatzea?
- Ingelesa nagusi izanik entretenimenduaren industrian, sare sozialetan eta mundu zientifiko eta akademikoan: moldatzeko beste hizkuntzarik behar ez izatea?
- Film, sail eta emankizun gehiago bikoizten dira ikaslearen ama hizkuntzan; hortaz, ez dute benetan ikusten atzerriko hizkuntza bat ikasteko beharra?
- Hizkuntza bat ikasteko denbora asko behar da: zailagoa da hizkuntza berri bat ikastea nerabetan haurtzaroan baino?

Edo beste arrazoi batzuk egon daitezke? Atzerriko hizkuntzak eta horien kulturak ikasteak egin dezake aldea. Izan ere:

- Hazten laguntzen du: burua zabaltzen du kontzientzia kulturala, jendeak nola eta zergatik jarduten duen ulertzea, inklusioa eta gizarte kohesioa sustatuz; hori guztia funtsezkoa da azkar garatzen ari den gizarte teknologikoan¹⁴, migrazio joerak ere kontuan hartuta.;¹⁵

⁷ Grafikoa Go!-ren barneko diseinu grafikoko taldearen eskutik.

⁸ [Atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza Europar Batasunean. European eskoletan hizkuntzak irakasteko datu gakoak – 2023ko edizioa](#) Oharra: Badirudi atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza gainbehera datorrela goi mailako hezkuntzan ere. Ikasle gutxik dute hizkuntzen ikasketekiko interesa, herrialde/eskualde askotan hizkuntza irakasleak falta badira ere. Alderdi hori ez dago jasota gidalerroetan, ez baita aztergai sartzan.

⁹ [Atzerriko hizkuntzaren ebaluazioa - PISA](#) Laster espero da. Hala ere, eskualde eta estatuetako txostenek jada adierazten dute kopuru baxuagoak direla interesari eta gaitasunei dagokienez.

¹⁰ Ama hizkuntza.

¹¹ [PIRLS 2021](#)

¹² [Atzerriko hizkuntzako eskolako antsietatearen eskala](#)

¹³ [Adimen Artifizialari buruzko araudia: Kontseiluak eskatu du oinarritzko eskubideak errespetatuko dituen AA segurua sustatzea](#)

¹⁴ [XXI. mendeko herritarrentzako gaitasun gakoak](#)

¹⁵ [Eleaniztasunari buruzko politikari dagokionez](#)

- Ezin konta ahala aukera profesional ematen ditu;¹⁶
- Gaitasun kognitiboak areagotzen ditu, hala nola malgutasuna, arazoaren konponketa eta pentsamendu abstraktua eta sortzailea;
- Pentsamenduak, sentimenduak eta beharrak hobeto komunikatzea ahalbidetzen du, eta komunikazioa finduagoa eta harmoniatsuagoa izaten laguntzen du, ñabardurekin;
- Gaurkotasunezko egunkarietako artikulatuak irakurtzera eta orainaldian gehiago egotera

bultzatzen du; eta azken baina ez hutsen, oso dibertigarria da, noski.

DIGI-LINGO proiektuaren xedea da bigarren mailako hezkuntzan **atzerriko hizkuntzen ikasketa eta irakaskuntza berrebaluatzeko** balizko konponbide bat ematea eta hizkuntzen irakaskuntzari mesede egitea hauen bitartez:

- Teknologia digitala sartuz (adibidez, ikus-entzunezko eta bideo materialak; lan orriak; ariketa digitalak) atzerriko hizkuntzako eskoletan.
- Irakasleak digitalki alfabetatuago bihurtzea.

DIGI-LINGO ez datza hezkuntza digital eta birtualaren premiari buruz kideen usteak proiektatzean. DIGI-LINGOren helburua da probetan oinarritutako hezkuntza eta didaktika digitalaren eraginkortasuna egiaztatzea. Hau da, tresna eta plataforma desberdinak probatzea, ikaskuntza bideekin esperimentatzea, doitzeta eta optimizatzea. Hori eginez, DIGI-LINGOren xedea da COVID-19aren pandemiak eta 2023. urtearen amaieran adimen artifizialaren (AA) bilakaerak sustatutako jardunbide egoki digitalak bermatzea. Izan ere, AA era gogoetatsuan¹⁷ erabiliz gero, idazteko¹⁸ eta hitz egiteko prozesua errazten du.

Hori bai, garrantzitsua da beti hezkuntzako digitalizazioa kontu handiz lantzea.¹⁹ Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza digitalak eta lankidetzak osagarriak dira, ez amaiera bikainak. Horrenbestez, gomendioek eta gidalerroek ez dituzte ordezkatzen online egiten ez diren atzerriko hizkuntzako jarduerak guztiak.

Goi mailako bigarren hezkuntzako ikasleen motibazioa murriztu egingo da askotan online soilik ikasten badute, ikaskuntza erdipresentzialarekin alderatuz gero. Eskola baten alderdi sozialak, ikaskideekin eta irakasleekin ez elkar eragiteak eta eskoletan aktiboki ez parte hartzeak, adibidez, esplizituki estimulatu edo zaindu ezean, ondorio negatiboak dituzte errendimenduan. Ikasleen arteko eta ikasleen eta irakasleen arteko loturei mesede egiteko garrantzitsua da ikaskuntza eta irakaskuntza jarduerak sinkronoak eta asinkronoak txandakatzea. Ikaskuntza jarduerak asinkronoak abantaila handiak dituzte jabetzari eta malgutasunari dagokionez, baina distantzia sentipena areagotu dezakete.

DIGI-LINGOren muinean honako hauek uztertzen dira:

- **XXI. mendeko gaitasun digitalak**²⁰;
- **kultura demokratikorako gaitasunak**²¹ (kulturartekotasuna ardatz hartuta);
- **ikaskuntza sakonagoa** (DIGI-LINGO esparruan aldatuta²²);
- **ikasleen autoerregulazioa** (arreta berezia jarrita helburuak jartzean, autokontrolan eta autoebaluazioan).

¹⁶ [Hizkuntza bat ikasteak enplegagarritasuna handitzen duela esateko bost arrazoi](#)

¹⁷ [EBko AAri buruzko legea](#)

¹⁸ Idazmenerako mehatxua izan daiteke, ordea, ordezkatuz erabiliz gero.

¹⁹ <https://dirkvandammeedu.net/wp-content/uploads/2021/05/Pak-digitalisering-in-het-onderwijs-doordacht-aan-VOKAEconocom-4-mei-2021.pdf>; [Onderwijsonderzoeken](#)

²⁰ Etorkizuneko lanerako gaitasunak XXI. mendean

²¹ <https://coe.int/en/web/campaign-free-to-speak-safe-to-learn/reference-framework-of-competences-for-democratic-culture>

²² Ikus "DIGI-LINGO Esparru analitikoaren eta jardunbide egokiaren identifikazioa".

DIGI-LINGOk orain arte esparru bat, gomendioak eta gidalerroak garatu ditu, literatura zientifikoko txosten batean eta irakasle eta ikasleei eginiko galdetegiaren emaitzetan oinarrituta. Produktu horiek guztiek herrialde/eskualde bakoitzeko **atzerriko hizkuntzaren curriculum helburuak** hobeto betetzen laguntzea dute xede. Nahi dena da **atzerriko hizkuntza ikasteko eta irakasteko kalitate digital handia eta ikasleen trukea lortzea osagarri gisa**²³, eta, aldi berean, kontzientzia handitzea, atzerriko hizkuntza ikasteko jarduera digitalean ikasleak inplikatzeko eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko dauden erroka ugari buruz. Argi dago irakasleen beharrezan oso garrantzitsuak direla. Haien TPACKak²⁴ (edukien ezagutza, ezagutza pedagogikoa eta ezagutza tekniko) orekatuta egon behar du eskola onak eman ahal izateko.



²³ Ikaskuntza erdipresentzialak ikaskuntza fisikoa (ikasgelako aurrez aurreko ikaskuntza) eta online ikaskuntza barne hartzen ditu.

²⁴ Koehler, M., & Mishra, P. (2009). What is technological pedagogical content knowledge (TPACK)?. Contemporary issues in technology and teacher education, 9(1), 60-70. / Kennisnet. (2014). Four in balance monitor. Zoetermeer, The Netherlands: Kennisnet Foundation. / Kennisnet. (2011). ICT in het schoolplan.

https://www.kennisnet.nl/app/uploads/kennisnet/publicatie/ict_in_het_schoolplan.pdf / Kennisnet. (2015). Het Vier in balans-model: optimaal rendement met ICT. <https://www.kennisnet.nl/artikel/6863/het-vier-in-balans-model-optimaal-rendement-met-ict/>

DIGI-LINGO gomendioak²⁵

DIGI-LINGO esparrua²⁶ eta ikasle eta irakasleen galdetegien emaitzak²⁷ kontuan hartuta, DIGI-LINGO gomendio hauek egin ditugu. Horrenbestez, literatura berrikuspenetik eta eskola txostenetatik atera dira eta Europako politikak egiten dituztenei zuzenduta daude.



1. gomendia: Atzerriko hizkuntzako irakasleei profesionalki garatzeko aukera nahikoa eskaintzea irakaskuntza erdipresentzialari dagokionez, bai eta hizkuntzen irakaskuntzarako online tresna eta plataforma birtual egokienak ere

Arretagunea:

- Ikaskuntza sakonagoa (DIGI-LINGO taldeak aldatuta);
- XXI. mendeko gaitasun digitalak²⁸;
- Trukerako plataforma birtualak.²⁹

2. gomendia: Atzerriko hizkuntzako irakasleei profesionalki garatzeko aukera nahikoa eskaintzea hizkuntzen irakaskuntzan oso garrantzitsuak diren zenbait gairekin lotuta

- Ikasleen autoerregulazioa (arreta berezia jarrita helburuak jartzean, ezberdintzean, autokontrollean eta autoebaluazioan);
- Kultura demokratikoa (kulturartekotasuna ardatz hartuta);
- Ikasleen inplikazioa eskolen diseinuan eta egikaritzean, baita ebaluazioarekin lotuta ere.

Irakasleen trebakuntza ikasgeletan arrakastaz ezartzeko, irakasleen ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak landu behar dira, eta ikastetxearen testuinguru espezifikoak kontuan hartu; horrela, ikasleak ondo prestatuta geratzen dira egungo panorama digital eta birtualaren konplexutasunetan nabigatzeko.

²⁵ Grafikoa Central Denmark Region-en barneko diseinu grafikoko taldearen eskutik.

²⁶ Ikus "[DIGI-LINGO Esparru analitiko eta jardunbide egokiaren identifikazioa](#)".

²⁷ Ikus "[DIGI-LINGO Galdetegietan oinarritutako emaitzak eta gomendioak](#)".

²⁸ [Learning Compass 2030](#)

²⁹ Parte hartzea, elkarreragina eta kulturartekotasuna lantzeko.

DIGI-LINGO gidalerroak

1. gidalerroa: Atzerriko hizkuntzako irakasleen ezagutza handitzea ikaskuntza sakonagoan³⁰ eta XXI. mendeko gaitasun digitaletan³¹

“PTDL eredu” deiturikoa ikuspegi pedagogiko bat da, eta ikasleen gaitasun eleaniztuna garatzea du helburu zenbait bideren bitartez ikasiz. PTDL **Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning** da, hau da, ikaskuntza sakonagorako irakaskuntza alfabetatze anitza. Eredua lau dimentsiotan oinarritzen da: garapen kognitiboa, aurrerapen linguistikoa, ikaskuntzaren diseinua eta ikaskuntzarako laguntza. Ereduaren helburua da ikaskuntza sakonagoa sustatzea, edukia, hizkuntza eta pentsamendua gai arlo desberdinetan txertatuz. PTDL eredu bereziki egokia da ikasgela eleaniztunetarako, ikasgela horietan ikasleek jatorri linguistikoa eta kulturak desberdinak baitituzte³². DIGI-LINGOk, horrenbestez, ikaskuntza sakonagoa sartu du bere esparruan eta galdetegietan.

Ereduaren barruan atzerriko hizkuntzako irakaskuntza onarekin lotutako puntuak aurki daitezke:

- Komunikazioa
- Kulturarteko ikuspegia
- Jatorrizko materiala
- Askotariko testu generoak
- Ikasleen inplikazioa/pertsonalizazioa
- Aniztasuna eta motibazioa

Ikasleei **hizkuntzen berriazko zenbait estrategia** nola erabili irakasteak (hala nola memoriakoak, kognitiboak, konpentsaziokoak, metakognitiboak, afektiboak eta sozialak) atzerriko hizkuntzako irakaskuntzaren zati oso garrantzitsua izaten jarraitzen du, bai online bai offline. Norberaren edukien ezagutza teknikoak, ezagutza pedagogiko teknikoak eta ezagutza teknikoak (TPACK) orekatuta egon behar du hizkuntza eskola digital ona eman ahal izateko. Atzerriko hizkuntzako eskola ona izateko, gakoa da jakitea zein pauso eman behar diren ikasleek, adibidez, hiztegia edo gramatika berria ikas dezaten, eta zein den pauso horiek emateko modu onena (ikasleen aurretiko ezagutza digitalki aktibatuz edo ez eta digitalki aktibatzen bada zein tresna erabili).

Didaktika eraginkorrak

Teknologiak irakaskuntza printzipio eraginkorrak areagotzen ditu testuak eta irudiak, 3D modelo interaktiboak eta 360º-ko agertokiak baliatuz (Mayer-en³³ printzipioei jarraituz), adibideak erabiliz (bideoak, kasurako), jarraibide egituratuak emanez (antolatzaile aurreratuak), ataza zailetan lagunduz (hala nola bideo interaktiboak edo errealtate birtualeko ariketak jendaurrean hitz egitean), eta probak eta atzeraelikadura emanez (besteak beste, galdera autozuzenduak). Ikuspegi horrek irakasleen lan karga murrizten badu ere, inbertsio handiak egin behar dira eta pentsamoldea behin betiko aldatu behar da, “eskola politika” atalean adierazten den moduan. Horretarako, didaktika eraginkorrak oso ondo ezagutu behar dira.

Nolanahi ere, atzerriko hizkuntzako irakasleen arazoak ez dira soilik alderdi teknikoak. Irakaskuntzarako tresna eta plataforma egokienak zein diren ere ulertu behar da eta eguneratuta egon

³⁰ DIGI-LINGO zuzendaritza taldeak eta ikastetxe bazkideek eta erakundeek aldatuta.


³¹ [Gaitasun digitala: XXI. mendeko ezinbesteko trebetasuna irakasle eta ikasleentzat](#)

³² Iturria: Bing Chat Enterprise, urriak 3. 2023.


³³ [Multimedia ikaskuntzarako Mayer-en 12 printzipioak](#)

bilakaera azkarra duen mundu digitalean. Tresna eta plataforma berriak argitaratzen dira egunero eta ulergarria da jendea adoregabetuta egotea. Gaitasun digitala XXI. mendeko ezinbesteko trebetasuna da bai irakasleentzat bai ikasleentzat.

34



³⁴ Grafikoak Go!-ren barneko diseinu grafikoko taldearen eskutik.



2. gidalerroa: Atzerriko hizkuntzako irakasleei profesionalki garatzeko aukera nahikoa eskaintzea irakaskuntza erdipresentzialari dagokionez, bai eta hizkuntzen irakaskuntzarako online tresna³⁵ eta plataforma birtual egokienak ere



Tresna digitalak eta pedagogia orekatuz atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan

UNESCOk alfabetatze digitala informazioa teknologia digitalak erabiliz modu seguruan eta egokian atzitzeko, kudeatzeko, integratzeko, komunikatzeko, ebaluatzeko eta sortzeko gaitasun gisa definitzen du. Alfabetatze informatikoa, IKTen alfabetatzea, alfabetatze informazionala eta multimedia alfabetatzea hartzen ditu barnean, beste gaitasun batzuen artean. **Hezitzaileentzako gaitasun digitalen esparrua**³⁶ alfabetatze harago doa eta Europako irakasleei beren trebetasun digitalak autoebaluatzeko aukera ahalbidetzen die. Digitalki trebea izateak esan nahi du teknologia modu kritikoan, kolaboratzailean eta sortzailean erabiltzen dela bost arlotan: alfabetatze informazionala eta datuena, komunikazioa eta lankidetzak, eduki digitalen sorrera, segurtasuna eta arazoaren konponketa³⁷.

Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan, **garrantzitsuak dira aniztasuna eta bereizketa**. Irakasleek monotonía saihestu behar dute tresna desberdinak erabiliz, baina beraiek edo ikasleak estutu gabe. Gogoan izan behar da tresna helburu bat lortzeko bitartekoa dela eta balio pedagogikoa eta eraginkortasuna lehenetsi behar direla. Batzuetan, arkatzak eta paperak ere eraginkortasun berdina izan dezakete. Galderarik garrantzitsuena da ea tresnak ikaskuntza eraginkorragoa bihurtzen duen. Atzerriko hizkuntza baten ikaskuntza helburuak lortzen laguntzen du eraginkortasunez?

Ikasteko tresna digitalak aukeratzean lau alderdi gako hauek hartu behar dira kontuan³⁸:

- Eraginkortasuna: Ikaskuntza helburuekin bat datozen eta emaitzak areagotzen dituzten tresnak aukeratzea (ikus didaktika eraginkorrak).
- Efizientzia: Ikasteko denbora eta kostua optimizatzea eraginkortasuna arriskuan jarri gabe eta, halaber, irakasteko/eskola partikularrak emateko denbora optimizatzea, betiere ondo diseinatutako eskolek automatizazio digitala izanik zereginak edo irakaskuntza bideoak hobetzeko.
- Ahalduntzea: Autonomia, autoerregulazioa eta metakognizioa bultzatzen duten tresnak aukeratzea.

³⁵ Ikus "DIGI-LINGO tresnen iradokizunak".

³⁶ [DigComp](#) : [EBren gaitasun digitalen esparrua](#)

³⁷ Irakurri beharrekoa: [Irakasle eta hezitzaileentzako gidalerroak desinformazioari heltzeko eta alfabetatze digitala sustatzeko hezkuntzaren eta prestakuntzaren bitartez - EBren Argitalpen Bulegoa \(europa.eu\)](#)

³⁸ Martin Valcke, *Digitala leren*, 2023

Natibo digitalak izan arren, ikasle asko bilaketa motor eta tresna jakin batzuk soilik ezagutzen dituzte. Guztiek ez dakite trebetasunez hodeian biltegitratzen, informazioa berreskuratzen edo prozesatzen eta, batzuetan, eduki digitalak ebaluatzen³⁹. Horrenbestez, irakasleak eredu izan behar dira askotariko tresnak eta plataformak azter ditzaten sustatzeko. Hala ere, ez da beharrezkoa tresna guztietan adituak izatea⁴⁰; moldagarritasuna trebetasun aitzindaria izatea baino garrantzitsuagoa da.

Hizkuntzen ikaskuntzan AA sartzeko, garrantzitsua da AAren zeregina, alde onak eta txarrak eta mehatxuak ikasleekin eztabaidatzea, bai eta giza interakzioaren eta kultur murgilketaren garrantzia azpimarratzea ere

³⁹ [Ikaskuntza erdipresentziala flandiar hezkuntzan](#)

⁴⁰ Hezkuntza Digitalaren Ekintza Plana (2021 -2027).

⁴¹ PBD GO!, *ChatGPT, handvaten voor leraren in de klas*, 2023 eta [WEF Shaping the Future of Learning 2024.pdf \(weforum.org\)](#)

3. gidalerroa: Ikasleak inplikatzeari atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzaren diseinuan eta egikaritzean, baita ebaluazioarekin lotuta ere



Tresna digitalak gidatuz atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan: konpromisoa eta ikaskuntza orekatuz

Gobernuen eta eskualdeen eskakizunak betetzeko eta ikasleen ikaskuntza eraginkortasunez gainbegiratzeko, atzerriko hizkuntzen eskoletako **curriculum helburuekin** hasi behar da. Areagotu ikasleen komunikazio gaitasunak (harrera, ekoizpena eta interakzioa) laguntza bisualak, tresna digitalak, teknika kolaboratiboak eta atazetan oinarritutako irakaskuntzak baliatuz.

Aktibatutako aurretik dauden ezagutzak, jarri eredutzat komunikazio eraginkorra eta hartu denbora gehiago galderei erantzuteko. **Gogoeta egin** komunikazio digitaleko ataza eta jardueren helburuari buruz, lagundu ikasleei beharrezkoak diren genero bakoitzaren berariazko ezaugarriak, moduak eta hizkuntza estiloak ezagutzen, atazak arrakastaz osatzeko. Irakaskuntza argia, egituratua eta erronkaria eman, eta adibideak erabili.

Tresna eta plataforma digital berriak sartzean, kontuan hartu ikasleak **benetan konprometituta** dauden ikaskuntza helburuekin edo soilik azaleko inplikazioa den. Gogoeta egin hezkuntza edukiak bereganatzen duen arreta edo joko elementuak eta sormenezko formak nagusitzen diren. Ahalegindu gogoeta eta ulermen sakona lortzen erantzunetan azkartasun hutsaren ordez, gamifikazioa ebaluazioan sartzen denean.

Uztartu **ebaluazio** formatiboa eta batutzailea. Ebaluazio formatiboa eta batutzailea prozesuei eta produktuari buruzkoak izan daitezke. Formatiboaren eta batutzailearen arteko aldea da lortutako datuak atestazioan sartzen diren ala ez (edo erabakiak hartzean); formatiboa bada, ez, batutzailea bada, bai. Inplikatu ikasleak autoebaluazioan eta berdinen arteko ebaluazioan. Kontuan hartu kanpo erakundeek ere, hala nola praktika hornitzaileek, ikasleak ere ebaluatzen dituztela. Erabili errubrikak, portfolio digitalak eta beste tresna batzuk ebaluazio zabal eta sakonerako.

Ikaskuntza erdipresentzialean, ikaskuntza helburu argiak izatea erabakigarria da. **“Elikadura” eraginkorrak** (areagotzea, atzeraelikadura, aurreraelikadura) ikasleak motibatzen ditu. Amaierako produktua ebaluatzeaz harago, prozesuan eta garapen metakognitiboan jarri behar da arreta. Kideen atzeraelikadurak ikaskuntza indartzen du. Eskatu aldizka ikasleen iritzia galderen garrantziari eta gardentasunari buruz, ebaluazioaren ekitatea eta eraginkortasuna optimizatzeko, eta, behar denean, irizpideak egokitu⁴².

⁴² [Ikaskuntza erdipresentziala flandiar hezkuntzan](#)

Ebaluazio digitalak informazioa eskaintzen badu ere, kontuz ibili behar da galderen aniztasunaren mugarekin. **Ebaluazio digitalaren erroka** batzuk kontuan izan behar dira. Adibidez, zenbaitetan oso zaila da soluzio prozesua, erabilitako estrategia, argi uztea ebaluazio digitalean. Normalean, erantzunak produktura bideratuta daude bakarrik, hau da, azken emaitza dute ardatz. Sustatu partaidetza aktiboa ikasleak ardatz dituen ikuspegiak, askotariko ariketen, ikaskuntza kooperatiboaren eta gamifikazioaren bitartez. Baliatu audio eta bideo atzeraelikadura erantzun osoak eta eraginkorrak lortzeko, ahaztu gabe ikasle batzuentzat iruzkin mota hori oso adoregabetzailea izan daitekeela. Horrenbestez, hasi beti iruzkin positiboekin, adierazi ikasleak jada ondo egin zuen zerbait (oro har desegokia izaten jarraitu arren) eta orduan soilik adierazi landu beharreko puntuak.

4. gidalerroa: Atzerriko hizkuntzako irakasleen gaitasunak handitzea ikasleen autoerregulazioa lantzeko, arreta berezia jarrita helburuak jartzean, bereiztean, autokontrolan eta autoebaluazioan



Autonomia eta ikaskuntza autoerregulatua sustatzea atzerriko hizkuntzen irakaskuntza erdipresentzian

Irakaskuntza erdipresentzialaren⁴³ egoera dinamikoan, non ikasleek ezin hobeto egiten duten online eta aurrez aurreko jardueren arteko trantsizioa, autonomiak funtsezko zeregina dauka. Funtsezkoa da jarraipen arrunta egitea online galdetegiaren eta elkarrizketen bitartez. Erabili online plataforma zentral bat komunikatzeko eta ikaskuntza jarduerak jaulkitzeko plataforma gisa. Ziurtatu jarduera horiek egitura ezagugarria, errepikakorra duten, eta irudikatu aurrerapena pantaila nagusian motibazioa areagotzeko.

Ikaskuntza autoerregulatua⁴⁴ kalitate handiko atzerriko hizkuntzen irakaskuntza digitalaren beste alderdi kritiko bat da. Barry Zimmermanek adierazten duen moduan, autoerregulazioa trebetasun hutsetik harago doa; prozesu autogidatua da, eta, beraz, ikasleek beren gaitasun mentalak abilezia akademikoan eraldatzen dituzte. Autokontzientzia, automotibazioa eta jokabide zolitasuna barne hartzen ditu eskuratutako ezagutzak eraginkortasunez aplikatzeko⁴⁵. Praktikari dagokionez, ikasleek arrakasta izateko duten gaitasunean sinesten dutenean, helburu argiak ezartzen dituzte, hizkuntza estrategia eraginkorak erabiltzen dituzte, aurrerapenak arduraz gainbegiratzen dituzte, arrakastak eta porrotak aztertzen dituzte eta horietatik ikasten dute, eta beren hizkuntzaren eskurapena nabarmen hobetzen da.

Irakasleek funtsezko zeregina dute autoerregulazioa sustatzeko. Ikasleak ahalduz dituzte independenteki ikasteko, prozesuen eta azken emaitzen aldizkako autoebaluazioa sustatzen dute, eta ikasleek hizkuntza ikasle gisa duten autopertzepzioa aztertzen dute. Nolanahi ere, autoerregulazioa ez da soluzio independente bat. Hizkuntza digitalen irakaskuntzan, ikaskuntza helburu argietan, eskolen egitura gardenetan, komunikazio eraginkorrean, baliozko ebaluazioan, atzeraelikadura eraikitzailean, bereiztean (bai eskolek iraun bitartean bai ondoren) eta ikaslearen ongizate sozialean oinarrituta dagoenean egiten du aurrera.

⁴³ [Ikaskuntza erdipresentziala flandiar hezkuntzan](#)

⁴⁴ [Autoerregulazioa lortzea: Ikuspegi kognitiboa](#)

⁴⁵ [Ikasle autoerregulatua bihurtuz](#)

Bereizketaren garrantzia inoiz ezin da gehiegi estimatu. Bereizketa atzerriko hizkuntzako irakasle batek modu kontziente, positibo eta sistematikoan ikasleen arteko alde kognitibo, metakognitibo, motibazional eta kulturalak lantzen dituen modua da. Irakasterakoan beraien interesetan arreta jartzea (hau da, motibazioa, ikasteko arrazoia), ikaskuntzaren egoera (norberaren helburuei eta gaitasunei buruzko aurretiko ezagutzak) eta ikaskuntza profila (ikasteko moduari buruzko lehenetsiak eta estrategiak) kontuan hartzen badira, ikasleek atzerriko hizkuntzen ikaskuntza hobetuko dute zalantzarik gabe. Ikaskuntza autoerregulatua nabarmen hobetu daiteke azken helburua lortzeko ibilbide desberdinak behar dituzten ikaskuntza bide moldagarrien bitartez. Gainera, behar dutenei laguntza gehigarria emateak, ikaskuntzaren aurrerapena ebaluatzen den eta teknologiak erantzuten duen une kritikoetan, bereiztea ahalbidetzen du. Testuinguru horretan, bereizketak autoerregulatutako ikasketa ere errazten die ikasle mota gehiagori.

Hezkuntza digitalak palanka gisa balio du **ikaskuntza pertsonalizaturako** eta ikaskuntza kolaboratiborako, baina ikaskuntza autoerregulatu eraginkorra ezartzeko erronka banakako irakasleetatik harago doa. Ikastetxe talde osoaren ahalegin kolektiboa behar da⁴⁶.

⁴⁶ [SRL with Ed Tech - IO4 Design principles & User stories \(install-ed.eu\)](https://www.install-ed.eu/)

5. gidalerroa: Atzerriko irakasleen gaitasunak handitzea kultura demokratikoa lantzeko, kulturartekotasuna ardatz hartuta⁴⁷



Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan hainbat testu deskriptibo, informatibo, hezigarri, narratibo, limurtzaile, azalpenezko eta multimodal erabiltzen dira ikasleen komunikazio trebetasunak lantzeko. Zein **testu** erabiltzen diren eta zenbat aldatu egin daiteke curriculumaren arabera, baina oinarria berdina izan ohi da herrialde guztietan. Hauek dira **testu digital** onen adibide batzuk: abestien hitzak, ahots edo testu mezuak, podcastak, bideo klipak, YouTubeko zatiak, egunkarietako artikulak, aldizkarietako artikulak, liburuen laburpenak, bideo elkarrizketak, telebistako albisteak, iritzi artikulak, blogak, iragarkiak, sare sozialetako mezuak... Atzerriko hizkuntzako atazak esanguratsuagoak bihurtzen dituzte ikasleentzat, eta balio kulturala transmititzen dute.

Benetako testu digitalak helburu pedagogikoekin sortutako testu digitalak baino aberatsagoak izaten dira bai hizkuntzari dagokionez bai edukiari dagokionez, askotan sinplifikatu edo laburtu egiten baitira. Benetakotasuna funtsezkoa da ikasleak mundu errealeko hizkuntzaren erabileren eraginpean jartzeko. Nolanahi ere, ikasle talde jakin batentzat egokia dena herrialde/eskualde nazional baten helburuek zehatzen dute. Hortaz, kasu batzuetan, ez dira benetako testuak gomendatzen, helburuek eskatzen dutena baino askoz zailagoak direlako.

Goi mailako bigarren hezkuntzako ikasleen artean **herritartasun inklusiboa** sustatzeko eta **kulturen arteko lankidetzaren eta komunikazioaren** sortzeko, funtsezko osagaia da **kulturen arteko ulermena**. Irakasle guztiak –ez bakarrik atzerriko hizkuntzak irakasten dituztenak– ikasleen **kulturarteko gaitasuna** sustatzen ahalegindu beharko lirateke. Helburua da hobeto ulertzea interakzio kulturantzuna, identitate sozialak eta komunikazio eraginkorra, ez bakarrik eskualde eta herrialde jakin batzuei buruzko informazioa, gertakariak eta tradizioak transmititzeko. Kulturarteko ulermena sinesmenei, balioei eta jarrerari buruzkoa ere bada, hala nola errespetua, zintzotasuna, berdintasuna, irekitasuna, konpromisoa eta inplikazioa.

⁴⁷ Google search-etik lortutako irudia: creative commons guztiak.

Kultura bat eraginkortasunez irakasteko eta kulturarteko ulermena sustatzeko, atzerriko hizkuntzako irakasleek ez dute halabeharrez adituak izan behar kultura horretan/kultura guztietan. Horren ordez, nahikoa da ikasleen artean desberdintasunei, pobrezari, iraunkortasunari eta antzeko gaiei buruzko eztabaida sustatzen duten jarduerak eta ikaskuntza inguruneak sortzea. Hori egin dezakete, baina ez soilik lexiko eta gramatikaren zailtasun mailaren eta kultura edukien araberrako testu digitalak aukeratuta, baizik eta testu desberdinak erabiliz, ikasleen interes eta **identitateetan**⁴⁸ eta testuaren **balio zibikoan**⁴⁹ oinarrituta. Horrek **ikaskuntza sakonagoa** sustatuko du, sare neuronal ugari sortuko ditu bata bestearen atzetik, eta benetako ekitatea eta inklusioa sustatuko ditu. Halaber, eragin positiboa izango du ikasleen jarreretan eta portaeretan, eta haien motibazioa eta ongizatea areagotuko ditu.

Lagundu ikasleei testuekin erlazionatzen, testuen eta beren bizitza, esperientzia edo jatorri kulturalen arteko **loturak** egiteko eskatuz. Lotura pertsonal horrek haien konpromisoa eta ulermena sakondu dezake. Jakina, ezberdintasunak errespetatzea ezinbestekoa da testuinguru horretan. Ikasleak **seguru** sentitzeko moduko atzerriko hizkuntzako ikasgela bat sortzea, beren ikuspegiak partekatzeko, baita testuetako gai edo ikuspuntuekiko desberdinak badira ere. Espazituki sustatzea errespetuzko elkarrizketa eta **ikuspegi desberdinekiko** irekitasuna. Erabili galdeketa estrategiak eztabaida suspertzeko: Animatu ikasleak **pentsamendu, analisi eta interpretazio kritikoa** eskatzen duten testuei buruzko galdera irekiak erantzutera. Esate baterako, "Zure ustez, zergatik aukeratu zuen egileak ikuspuntu zehatz hori?" edo "Zer arazo soziali buruz ari da testua?". Erabili **analisi konparatiboa**: Ikasleek alderatu eta kontrasta ditzatela antzeko gaiei buruzko hainbat testu, eta identifika ditzatela herrialdeen/herritarren/hizkuntzen arteko alderdi komunak, desberdintasunak eta ereduak. Hori bat dator herritartasun aktiboaren helburuekin; hain zuzen ere, elkarrizketa kritikoa, informatua eta eraikitzailea funtsezkoa da, eta irakasleek aukerak baliatzen dituzte elkarrizketa horren bitartez gizarte demokratikoarekin lotutako identitate, aniztasun eta erronkei buruzko ikuspegiak aztertzeko.

Hori egin bitartean, garrantzitsua da atzerriko hizkuntzako irakasleek beren **identitate kulturala eta linguistikoa** ondo ezagutzea eta **estereotipoak eta aurreiritziak saihestea**. Honako hauek dira estrategiak, besteak beste: egoera ezagunekin hastea eta testuinguru ezezagunetan berrirudikatzea, rol jokia eta ikasleei galdera egokiak egiten laguntzea. Ikasleekin eta familiekin eraginkortasunez jarduteko, ezinbestekoa da galderak egitea eta beren identitateak adieraz ditzaten uztea. Hori bereziki garrantzitsua da "Hirugarren Kulturako Haurrak"⁵⁰ deritzenentzat; izan ere, garapen urte gehienak gurasoen kulturatik kanpo igerotzen dituzte, eta horrek haien identitatean eragiten du (maila ezberdinetan). Haur horiek, adibidez, bi kulturatetik/kulturazintasunetik edo bi arrazatiko edo arraza anitzeko etxeetatik datoz edo etorkinen, errefuxiatuen, gutxiengoaren edo nazioarteko adopzioen seme-alabak dira. Identitate ezberdin horiek guztiak ulertzea funtsezkoa da ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko **desberdintasun kulturalak** ulertzeko eta ikasleen eta irakasleen arteko benetako elkarbizitza sustatzeko.

⁴⁸ Beren jatorri linguistikoa, kulturala eta sozioekonomikoa.

⁴⁹ Beren erantzukizun zibilari dei eginez.

⁵⁰ [Hiru Kulturako Haurrak](#)

6. gidalerroa: Trukerako plataforma birtualak erabiltzera animatzea parte hartzea, elkarreragitea eta kulturartekotasuna lantzeko



Truke plataforma birtualek aukera aparta ematen diete ikasleei **jatorrizko hiztunekin** elkar eragiteko eta **benetako testuinguru kulturaletan** murgiltzeko, kokapen fisikoa zein den gorabehera, herrialde/eskualde barruko edo Europa zabaleko beste eskola batzuekin lankidetzan. Truke birtualak eraginkortasunez aplikatzeko, hobe litzateke erakunde globalekin jardutea; izan ere, horrek aukera gehiago ematen die ikasleei jatorrizko hiztunekin elkarrizketan aritzeko; hizkuntza trebetasunez gain, kultura arloko gaiak ere lantzen dituzten eta esperientziak partekatzen dituzten **elkarrizketa jarduera egituratuak** egin ditzakete; adibidez, eskola, hiri, probintzia eta beste leku interesgarri batzuetan **360 graduko ibilbideak** integratzen ditu; **gogoeta** ziurtatzen du, eta **autokontzientzia eta pentsamendu kritikoa** sustatzen ditu egunerokoen, blogen edo eztabaiden bidez.

Irakasleek honako galdera hauek egin behar dizkiote beren buruari: Nire ikasleak eskualde eta mugetatik haragoko beste ikasle batzuekin elkartzeko erabiltzen dudan tresnak zabaltzen ditu benetan bere ikaskuntza eta ikaskuntza ingurunea? Kanpoko mundua ikasgelara eramaten du eta benetakotasuna eta eduki baliotsuak eskaintzen ditu? Emaizak merezi du trukerako jarritako ahalegina? Gogoeta egin behar da beste gai hauei buruz ere, ahal izanez gero ikasleekin batera: eskola lankidetzarako plataforma “desegokiak”, hala nola sare sozialak, eta kasu batzuetan errazagoa izatea **bikote linguistikoa** lortzeko era berean atzerriko hizkuntza ikasten ari den norbaitekin harremanetan jartzea, jatorrizko hiztuna izan beharrean.

Truke birtualak aukera asko eskaintzen ditu, aurrez aurreko trukearen orde, edo zuzeneko truke baten aurretik edo ondoren. Baina prozesua prestatzeko eta behatzeko denbora asko behar da eta beti dago ikasleak linguistikoki “bikote egokia” ez izateko arriskua. Horrenbestez, ziurtatu **Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua**: Ikaskuntza, irakaskuntza, ebaluazioa (CEFR)⁵¹ begiratzen dela, helburu argiak ezarri, egitura argia eman eta komunikazio argia eskaini⁵².

⁵¹ [Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailak](#)

⁵² Adibidez, [eTwinning | Europako Eskola Hezkuntzako Plataforma](#) plataformaren bitartez.

Atzerriko Hizkuntzaren Irakaskuntza eta Ikaskuntzaren DIGI-LINGO Esparruaren truke osagai birtuala izan daiteke arestian aipatutako erronken erantzuna. Plataforma horren helburua da banakako irakasleen administrazio zama murriztea, tokiko eta eskualdeko agintariei laguntza ematea bermatuz. Irakasleek ezarri den antolaketa eredu erabil dezakete, ez bakarrik izan daitezkeen kideekin eraginkortasun handiagoz konektatzeko, baizik eta baita truke birtual horiek martxan jartzeko beharrezkoak diren elementu guztiez hornitzeko ere.

Truke birtualek atzerriko hizkuntzak ikasteko esperientziak aberasten dituzte, nazioz gaindiko ikaskuntza sustatzen dute eta jardunbide onenak partekatzea errazten dute. Truke birtuala txertatuz, DIGI-LINGO esparruak **atzerriko hizkuntzako irakaskuntzaren ikuspegi jasangarriagoa eta komunitarioagoa sustatzen du, ikasleen konpromisoa eta kulturarteko gaitasunak indartuz.**

DIGI-LINGO tresnen iradokizunak⁵³



Honako hauek atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako egokienak diren tresna libreen iradokizunak dira⁵⁴. Tresnak funtzionaltasunari erreparatuta sailkatu dira, ikuspegi orokor garden bat emateko. Nolanahi ere, garrantzitsua da nabarmentzea tresna batzuk askotariko azpikategoriatakoak izan daitezkeela eta hau ez dela zerrenda osoa.

Ekosistema digital batean bi maila daude:

1. Ikaskuntza kudeatzeko sistema (IKS), hala nola [Smartschool](#), [Moodle](#) edo [Microsoft Teams](#). Software plataformak dira, online ikastaroak kudeatzeko, ikastaroetako materialak banatzeko eta ikasleen eta irakasleen arteko lankidetzaz errazteko. Elementu horiek funtsezkoak dira autoerregulatutako ikaskuntzarako eta bereizketarako; izan ere, kasu batzuetan, ikasteko bide moldagarriak ahalbidetzen dituzte.
2. IKSra lotutako tresnak edo osagarri gisa erabilgaitakoak. Pedagogiarako funtzionalitate gehigarria ematen dute, ikasteko eduki berriak sortzen dituzte edo plataforman produktibitate funtzionalitatea eskaintzen dute, hala nola irakurketaren aurrerapena irakurketan laguntzeko, ikaskuntza egoeraren erregistroa ikasgela mailan eta aurkezpen tresnak.

Tresna horiek honako azpikategoria hauetan bana daitezke:

1. Produktibitate tresna orokorrak hitzen prozesamenduarekin, kalkulu orriak (Excel) eta aurkezpen gaitasunak (PowerPoint), hala nola Microsoft Suite, Google eta Apple suite.
2. Tresna didaktikoak, ikasleei ikasgaiaren murgiltzen laguntzeko, ateratzeko (ikasi dutena ebaluatu eta hobetzeko ideiei buruz gogoeta egin) eta elkarri eragiteko eta lankidetzan aritzeko. Jarraian agertzen dira, nagusiki, komunikatzeko, lankidetzan aritzeko, inkestak egiteko, galdeketa egiteko eta elkar eragiteko tresnak.
3. Edukiak sortzeko tresnak bi azpikategoriatan banatuta daude
4. Edukiak sortzeko tresnak, hala nola [Xerte](#), [H5P](#), [BrightBook](#) eta [BookWidgets](#), zeinak egitura eta elkarreragingarritasuna ematen duten eta irakasleei eduki interaktiboak sortzea errazten dieten, adibidez, bideoak, probak eta jokoak, programatzeko trebetasunik izan gabe.
5. Multimedia sortzeko tresnak, irakasleek bideoak, irudiak, argazkiak, 360° agertokiak, 3D ereduak, audioa, eta abar editatzeko balio dutenak. Horiek edukiak sortzeko tresnetan sartzen dira; horri esker, TPACKaren arabera haien inguruan beharrezkoak diren jarraibideak eta egitura eraiki daitezke.

AAan oinarritutako *chatbot*ak, elkarriketarako tresna gisa funtzionatzen dutenak⁵⁵

1. [ChatGPT](#): OpenAIk garatua.
2. [Copilot](#): Microsoftek garatua.
3. [Gemini](#): Googlek garatua.

Hizketa eta bideo estimuluak

⁵³ Grafikoa Central Denmark Region-en barneko diseinu grafikoko taldearen eskutik.

⁵⁴ Nabardura bat azaldu behar da: berez ez da tresna "liberrik" existitzen. Diru sarreren eredu bat dago beti horien atzean. Normalean, tresna mugatuak dira erabilgaitzak kopuruari eta sor daitezkeen bideo kopuruari eta motei dagokienez, adibidez. Screencastify tresnak, esate baterako, doako 10 bideo sortzeko muga du orain. Hortaz, hemen aipatzen ditugun tresna guztiek erabilera "libre" mugatua dute.

⁵⁵ Librea ez den arren, aipatu nahi dugun *chatbot* bat hau da: [VirtualSpeech](#). Horri esker, ikasleek AAan oinarritutako *chatbot*ekin elkar eragin dezakete benetakoagoak diren testuinguruetan, adibidez: [AI-Powered Roleplay Exercises for Soft Skills](#).

1. [Edpuzzle](#): YouTubeko bideoak editatzeko, norbere bideoak grabatzeko eta eduki horretan oinarritutako galderak eta ebaluazioak sartzeko tresna bat da, eta berehalako atzeraelikadura ematen du.
2. [Flip](#) (lehen Flipgrid): Bideoak eztabaidatzeko edo bideoak partekatzeko app bat da.
3. [Loom](#): Bideo mezuak bidaltzeko eta pantaila grabatzeko tresna da.
4. [PechaKucha](#): Aurkezpen formatu japoniarra da.
5. [Screencastify](#): Pantaila grabatzeko eta bideoak editatzeko tresna da.
6. [ScreenPal](#): Pantaila grabatzeko erabilera anitzeko tresna da, eta ezin hobea da ikasgela irauli baterako.
7. [Moovly](#): Pantaila grabatzeko eta bideoak editatzeko tresna flandiarra da.

Lankidetzak

1. [CryptPad](#): Kode irekiko online editore bat da, muturretik muturrera zifratuta dago eta lankidetzazko edizioa ahalbidetzen du denbora errealean.
2. [Etherpad](#): Kode irekiko online editore pertsonalizagarria da, eta lankidetzazko edizioa ahalbidetzen du denbora errealean.
3. [eTwinning](#): Europako beste herrialde batzuetako ikastetxeekin lankidetzan aritzeko eta ikasteko plataforma.
4. [Google classroom](#): hodeian oinarritutako plataforma, Googleren eskutik.
5. [LessonUp](#): Aurkezpen plataforma interaktibo bat da, ia doakoa. Plataforman, aurkezpenak, galderak, galdeketak, inkestak eta ebaluazioak argitaratu daitezke.
6. [Microsoft Teams](#): Hodeian oinarritutako plataforma da, Microsoft 365en eskutik.
7. [MindMeister](#): Ideia jasak egiteko, proiektuak planifikatzeko eta denbora kudeatzeko tresna bat da.
8. [Miro](#): Online lan espazio bisual bat da, eta lankidetzazko edizioa ahalbidetzen du denbora errealean.
9. [Wallwork](#): Lankidetzazko online plataforma bat da.

Komunikazioa

1. [ClassDojo](#): Mezularitzako app bat da.
2. [Classroomscreen](#): Hau lankidetzarako online arbel zuri bat da, atzeraelikadura jasotzeko, denboraren kudeaketa bultzatzeko eta askoz gehiagorako aplikazioekin.
3. [Padlet](#): Lankidetzarako online ohar, arbel zuri eta galdera eta erantzunen arbel bat da.
4. [Slack](#): Mezularitzako app bat da
5. [Zoom](#): hodeian oinarritutako plataforma bat da.
6. [Reading Coach](#) in Immersive Reader: Microsoften ingurunean inplementatzen da eta oso interesgarria da inklusio digitalerako.

Inkestak

1. [Mentimeter](#): Honek hodeiko, zuzeneko eta berehalako inkestak, galdeketak eta neurketak sortzen ditu.
2. [Slido](#): Galdeketak sortzen ditu zuzenean eta berehala.
3. [Wooclap](#): Honek aukera anitzeko galderak, zuzeneko eta berehalako inkestak, ideia jasak eta askoz gehiago sortzen ditu.

Galdeketak

1. [Kahoot](#): Aukera anitzeko galdeketak sortzen ditu.
2. [Quizizz](#): Galdeketak sortzeko tresna bat da, eta gamifikazioa, memeen edizioa eta musika aukerak gehitu zaizkio ikasleentzat esperientzia murgiltzaileagoa izan dadin.
3. [Quizlet](#): Hau fitxen eta aukera anitzeko galdeketen sortzaile bat da. Gainera, letreiatzeko modu bat dauka (tresnak hitz bat ozen esango du, eta gero ikasleari eskatuko zaio haren ortografia idaztea), baita "bikote" modu bat ere (ikasleek hitz zuzenak edo hitzen eta irudien nahasketak elkartu behar dituzte).
4. [Socrative](#): Zuzeneko elkarrekintza eta atzeraelikadurarako diseinatutako galdeketa sistema da.

Elkarreragina

1. [Keamk](#): Ausazko eta orekatutako talde sortzailea da, eta ikasle guztien interakzioa eta gogoeta sustatzen ditu.

2. [Quick, Draw!](#): Hau joko bat da, ikaskuntza automatikoa erabiltzen du zirriborroak igartzeko eta suposizioak hitzez adierazten ditu.
3. [Wheel Decide](#): Online erruleta tresna bat da, eta ikasle guztien interakzioa eta gogoeta sustatzen ditu.

Multimedia (sorkuntza)

1. [Google Cardboard app](#): Errealitate birtualeko tresna bat da.
2. [Google Expeditions and Tour Builder](#): Tresna honek, ikasleei leku ezberdinak birtualki bisitatzen laguntzeaz gainera, esperientzia zerrenda luzea eskaintzen die, gizarte ikasketen, zientzien, arteen, karreraren eta hezkuntza teknikoaren arloko gaietan, besteak beste.
3. [ThingLink](#): Tresna honek norbere irudi interaktiboak, bideoak eta 360° materiala sortzen laguntzen du.


AA eta beste irudi batzuk

1. [DALL·E](#): AA sistema honek irudi errealistak eta artea sor ditzake hizkuntza naturalean egindako deskribapen batetik abiatuta.
2. [Firefly](#): AA sistema honek irudi errealistak eta artea sor ditzake hizkuntza naturalean egindako deskribapen batetik abiatuta.
3. [Stable Diffusion](#): AA sistema honek irudi errealistak eta artea sor ditzake hizkuntza naturalean egindako deskribapen batetik abiatuta.
4. [Hero Forge Custom Miniatures](#): Pertsonaia sortzaile emankorra da.
5. [Quick, Draw!](#): Hau joko bat da, ikaskuntza automatikoa erabiltzen du zirriborroak igartzeko eta suposizioak hitzez adierazten ditu.
6. [Adobe Express](#): Tresna honek argazki erreportajeak, bidaia erreportajeak, portfolioak, buletinak, kirol iragarkiak, eta abar sortzen ditu.
7. [Canva](#): Online diseinuko eta komunikazio bisualeko plataforma bat da.

Fitxak

1. [Anki](#): Kode irekiko fitxa sortzailea da.
2. [Flippity](#): Irakasleentzako baliabide bat da, eta galdeketak, fitxak, aurkezpenak, memoria jokoak, ausazko izen biltzaileak, hitz bilaketak eta gehiago sortzeko aukera ematen du.
3. [Memorize Now](#): Fitxa sortzailea da.
 1. [Vocabulary.com](#): Hiztegi entrenatzailea eta hiztegi zerrenden sortzailea da.

DIGI-LINGO eskola politikan⁵⁶



Eskola politika funtsezko elementua atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza digitalean

Atzerriko hizkuntza era digitalean ikasteko eta irakasteko eta ikasleen truke birtualerako gidalerroek, jakina, eskola baten IKTen garapen plan handiago baten parte izan behar dute beti.⁵⁷ Plan horrek eragin positiboa izan dezake atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan, eskolaren ikuspegia idaztean **IKTen erabilera didaktikoari** buruz irakasle talde osoarekin batera eta gobernuko/eskualdeko agintarien betekizun digitalekin eta/edo gobernuko/eskualdeko agintarien laguntza ekonomikoarekin. Horrek berarekin dakar irakasle taldearen pentsamoldea aldatzeko estrategia ondo orekatuta egotea, egituraz sartuta egotea irakasle guztientzako garapen profesionala, ikaskuntzarako material digitalak eta azpiegiturak, eta **neurriak** hartzea ikaskuntza erdipresentzialaren ondoriozko eskolako berariazko erronkak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko, bereziki zenbait ikasleren premia sozioekonomikoak eta hiztegi eskasa duten ikasleen ikasketa premiak.


Horrek, gainera, zama murrizteko plangintza eskatzen du, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat, eta atzerriko hizkuntza digitalaren irakaskuntzari eta ikaskuntzari benetan laguntzen dion **ingurunea** eskaintzea: adibidez, beharrezkoak diren tresna digitalak, Internetarako kalitatezko sarbidea (fidagarria eta azkarra), eskolaren jabetzako edo eskolak kudeatutako gailu digitalak ikasleek eskolan eta etxean erabil ditzaten (azken hori aplikagarria denean eta aukera dagoenean), gurasoen parte hartzea eta laguntza ikaskuntza eta komunikazio ingurune digitalari dagokionez, irakasleek IKTak eskoletan txertatzeko denbora nahikoa, espazio fisiko nahikoa, eta, justu une egokian, irakasleentzako laguntza teknikoak, arazorik egonez gero.

⁵⁶ Google search-etik lortutako irudia: creative commons guztiak. Eta grafikoa Go!-ren barneko diseinu grafikoko taldearen eskutik.

⁵⁷ [Een ICT-beleidsplan: hoe begin ik eraan? | Vlaanderen.be](#)

Testuinguru horretan, ikastetxeek denbora eman behar dute **etengabeko garapen profesionalerako**, bai irakasgaiaren, bai irakasgaiaren didaktikan; kasurako, irakasleei aukera emanaz parte hartzeko aurrez aurreko eta online ikastaroetan eta ezagutza zientifikoei buruzko web mintegietan, ikasketa bisitetan eta sareetan, non material didaktikoa eta esperientziak partekatzen diren atzerriko hizkuntzako beste irakasle batzuekin, eskola/herrialde/eskualdean edo horietatik kanpoko. Horregatik, beharrezkoa da **PDCA**⁵⁸ oinarritutako sistema bat ezartzea, barne kalitatea zaintzeko eta ikastetxeko IKTen garapen plana etengabe hobetzeko. **IKTen horrelako garapen plan** idatzi eta lagundurik ez duten ikastetxeetako atzerriko hizkuntzako irakasleak askotan jabetzen dira ikasteko eta ebaluatzeko eta truke birtuala egiteko online tresnak eta plataformak erabiltzean eskoletan aurkitzen dituzten arazoak politika mailan konpondu behar direla.

Eskolako IKTen garapen plana



Irakasleak ahalduntzea, aldaketaren kudeaketaren garrantzia

⁵⁸ **Plan-Do-Check-Act (PDCA)** zikloa etengabeko hobekuntzaren ikuspegi sistematikoa da, eta horren bidez, **Plan** terminoak esan nahi du aukera bat antzematea eta aldaketa planifikatzea, **Do** hitzak aldaketa probatzea eskala txikiko azterlan baten bidez, **Check** terminoak probaren emaitzak berrikustea eta ikaspen nagusiak identifikatzea esan nahi

du, eta **Act** hitzak ikasitakoan oinarrituta ekintzara igarotzea eskatzen du. Aldaketak ez badu balio izan, beste plan batekin errepikatu behar du. Ondo ateratzen bada, ikaspenak hobekuntza zabalagoetan sartu behar ditu. PDCA sistemak, **Deming zikloa** gisa ere ezagutzen denak, aribideko atzeraelikadura eta areagotze errepikariak bermatzen ditu prozesuetan.

Arestian deskribatu dugun bezala⁵⁹, hainbat arrazoi daude gaur egun atzerriko hizkuntzako irakasleek plataforma eta tresna digitalak ez ibiltzeko ikasleen artean “ikasketa sakonagoa” sustatzeko. Dokumentu honetako jarraibideek laguntzaren eta garapen profesionalaren garrantzia azpimarratzen dute. Berez, ADKAR⁶⁰ ereduak erakusten du banakoek, hasteko, arazoaz edo beharrezkoa den aldaketaz jabetu behar dutela (kontzientziazioa) eta hura onartzeko prest egon behar dutela (desira), ezagutzan (ezagutza) eta gaitasunetan/trebetasunetan (gaitasuna) zentratu aurretik, eta, azkenik, aldaketa indartu (errefortzua). DIGI-LINGO gogoetarako galderak eta eskola politikari buruzko aurreko kapituluak –zehazki, ikuspegia eskola taldearekin lankidetzan garatzearen garrantzia– horri heltzea dute helburu. Eskola gisa, erabakigarria da ADKAR kontuan izatea atzerriko hizkuntzako irakasleak hezkuntza digitala eta birtuala modu jasangarrian hartzera bultzatzeko.

⁵⁹ “Hastapena” kapituluaren eta TPACK kapituluaren.

⁶⁰ [The Prosci ADKAR® Model](#)

DIGI-LINGO gogoeta⁶¹



Gauzatzeko, gogoeta egiteko eta egokitzeko denbora behar duen prozesua da atzerriko hizkuntza era digitalean ikastea, irakastea eta ikastetxe eta herrialdeen arteko ikasleen truke birtuala. Hurrengo 25 galderak dokumentu honen edukian oinarrituta daude, eta atzerriko hizkuntzako irakasleen arteko eztabaida bultzatu nahi dute beren ikastetxean bertan eta beste ikastetxe batzuetan.

Sarrerari buruz

- Zer tresna digitalek **errazten** dizute lana eta laguntzen die ikasleei **eraginkortasunez** emaitza hobeak lortzen?
- Nola sortzen dituzu **benetako eta egiazko komunikazio aukerak** atzerriko hizkuntzako eskolan? Pentsatu bi adibide, zeinetan batek gutxienez IKTak barne hartzen dituen.
- Zure ustez, **adimen artifizialeko aplikazioak** mehatxua dira atzerriko hizkuntzak ikasteko? Arrazoitu zergatik (ez).
- Arrazoi ugari aipatzen dira **atzerriko hizkuntzako eskolen eta ikasleen beherakada** azaltzeko. Antzeman duzu hauetakoren bat zure testuinguruan? Zure ustez, beste arrazoiaren bat egon daiteke? Hala bada, azaldu.
- Arrazoi ugari aipatzen dira **atzerriko hizkuntzak eta horien kulturak ikastea defendatzeko**. Zure ustez, zein dira arrazoi nagusiak? Eta, zure ustez, zeinek konbentzitzen ditu ikasleak? Zein ulertuko lituzke zuzendaritzak? Politikariak? Arrazoitu.
- Zure ustez, atzerriko hizkuntzak soilik **online ikastaro hutsen** bitartez ikastea hobe da goi mailako bigarren hezkuntzako testuinguru batzuetan modu erdipresentzialean ikastea baino? Arrazoitu zergatik (ez).

Gomendioei buruz

- Nola egoten zara egunean gaur egun dauden **tresna eta plataforma digital kantitatearekin** eta egunero desagertzen/garutzen aritzeari dagokionez? Nola aukeratzen duzu zein tresna/plataforma zehatz erabili? Azaldu.
- Zure eskoletatik zenbat dira **ikasketa erdipresentzialekoak**⁶² eta zergatik da portzentaje hori hain altua edo baxua? Azaldu.
- Nola eta noiz erabiltzen dituzu tresna/plataforma digitalak zure ikasleak **ebalutzeko**? Azaldu.
- Zein (halakorik badago) **truke plataforma birtual** erabiltzen duzu eta, zure ustez, zein da haren arrazoi eta alde on nagusia? Azaldu.

Gidalerroei dagokienez

⁶¹ Google search-etik lortutako irudia: creative commons guztiak.

⁶² Horren bidez, ez dugu esan nahi eskola bakoitzak alderdi “erdipresentzialik” izan behar duenik. Denbora tarte batean emateko eskolez ari gara.

- Zure **TPACK**a ondo dago: Oreatuta daude zure edukien ezagutza, ezagutza pedagogikoa eta ezagutza teknikoa? Zein alderdirekin ari zara arazoak izaten (halakorik badago) eta zergatik? Azaldu.
- Nola **aukeratzen** duzu zein tresna eta plataforma zehatz erabili zure hizkuntza ikastaroaren zein alderditarako? Zein irizpide erabiltzen dituzu? Nola mantentzen dituzu ikasleak interesatuta irakasle gisa estutzen ez zaren bitartean? Azaldu.
- Zure ustez, goi mailako bigarren hezkuntzako ikasleek, nahiz eta **natibo digitalizat** deskribatzen diren, askotan, erabiltzen dituzten tresna partikularrik bakarrik ezagutzen dituzte? Arrazoitu zergatik (ez).
- Zein da zure helburu pertsonala atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza digitalari dagokionez? IKTen arloko **aitzindari** bihurtzea da edo hori hurrenegi joatea da? Agian, halakoa zara jada? Azaldu.
- Izan duzu edo prestatzen ari zara eztabaidarik ikasleekin atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikasteko **adimen artifizialeko aplikazioen** erabilerari buruz (aukerak eta alde onak, baina baita alde txarrak eta mehatxuak ere)? Arrazoitu zergatik (ez). Hala bada, zein izan zen eztabaidaren emaitza? Zein dira aurkikuntza nagusiak?
- **Ebaluazio digitaleko errubrikak sortzen dituzu beste batzuekin batera** zure ikasleekin lanak, proiektuak eta probak egiteko? Batzuetan galdetzen diezu ondoren irizpideak zuzenak eta eraginkorrak ote ziren? Arrazoitu zergatik (ez).
- **Ebaluazio digitala** asko erabiltzen duzu? Arrazoitu zergatik (ez). Baina, hala bada, zein dira erabiltzeko online tresna eta plataforma onenak? Zein tresna eta plataformak ahalbidetzen dute ebaluazio baliozko, objektibo eta gardena eta datu asko sortzen ditu?
- Askok erabiltzen duzu **gamifikazioa**⁶³ atzerriko hizkuntzako ikasgelan? Arrazoitu zergatik (ez).
- Nola estimulatzen duzu **autoerregulazioa**⁶⁴ atzerriko hizkuntzako eskoletan? Azaldu.
- Zein zeregin dauka **herriartetasun inklusiboak** zure herrialde/eskualdean? Atzerriko hizkuntzako curriculumean edo curriculumeko beste nonbait esplizituki sartuta dago? Azaldu.
- Zein da zure **identitate kultural eta linguistikoa** eta nola eragiten dio atzerriko hizkuntzak irakasten dituzun moduari? Azaldu.
- Nola saiatzen zara **estereotipoak eta aurreiritziak** saihesten atzerriko hizkuntzako eskolan? Azaldu.
- Zure ustez, badago nahikoa leku atzerriko hizkuntzen curriculumean ikasleei aukera emateko atzerriko hizkuntzak ikasteko prozesua eta produktuak **beren kabuz ebaluatzeko** eta **beren buruei buruzko sinesmenak** aztertzeko, atzerriko hizkuntzen ikasle gisa? Arrazoitu zergatik (ez).
- Gomendio guztien artean, zure ustez, zein da praktikan jartzeko zailena eta zein da **ezartzeko** nahiko erraza? Azaldu.


Eskola politikari buruz

- Zein dira zure ikastetxearen **premia handienak**? Irakasle taldearen pentsamoldea aldatu behar da atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan IKTak sartzeari dagokionez? Zama murrizteko plangintza? Atzerriko hizkuntzen eskoletan IKTak txertatu ahal izateko garapen profesionalerako aukerak eskasak izatea eta ezinbestekotzat ez hartzea? Ikasteko material digitalik (zuzenik) ez egotea atzerriko hizkuntzetako eskoletarako? Agian, behar den azpiegitura falta izatea, Internetarako kalitatezko sarbidea barne (fidagarria eta azkarra)? Edo lotura handiagoa du ikasleek etxeko egoerarekin, hala nola gailu faltarekin, ikasteko giro egokiarekin edo gurasoen komunikazio digitalean parte hartzearekin? Azaldu bi premia handienak eta arrazoitu.
- Ikasketa premiak eta premia sozioekonomikoak dituzten ikasleek, askotan, ikaskuntza erdipresentziala beste **oztopo** bat izango balitz bezala bizi dute. Zure ikastetxeak premia horiek dituzten ikasle asko ditu eta, hala bada, nola saiatzen da ikastetxea ikasle horiek atzean geratu ez daitezen? Zein neurri zehatz hartzen dira? Azaldu.

⁶³ Adibidez, jolasak sartzen hiztegia eta gramatika ikasteko edo praktikatzeko.

⁶⁴ Ikasleek beren ikaskuntza helburuak lortzeko ekintzak planifikatzen, ebaluatzen eta egokitzen dituzten modua (ikus Barry Zimmerman).

DIGI-LINGO eranskina



Gaur egungo munduan tresna digitalak ugaritzea, eta horiek sarri agertzea eta desagertzea, erronka bat da atzerriko hizkuntzako irakasleentzat. Eskuragarri dauden tresna guztiak menderatzen saiatzea ezinezkoa da, eta ez da nahi halakorik. Horren ordez, irakasleek arreta handiz aukeratutako tresna multzo batean jarri behar lukete arreta, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza areagotzeko.

Tresnak aukeratzeko hainbat irizpide erabiltzen dira. Besteak beste, datuen hobekuntza, erabiltzaileen adiskidetasuna, kostua eta ikasleen esker ona. Ikastetxe batzuek berariazko tresnak erabiltzea ere agintzen dute, harpidetza ordainduak tarteko. Nolanahi ere, trikimailu bat dago: online tresna librean denbora mugatu batean bakarrik izan daitezke librean. Egoera hori etsigarria izan daiteke, batik bat irakasleek denbora ematen dutenean tresna bat ikasten, geroago ezin erabili izateko.

Horri aurre egiteko, DIGI-LINGO zuzendaritza taldeak online tresna librean estekak berrikusten ditu sei hilean behin. Erronkak gorabehera, tresna horiei buruz informatuta egotea erabakigarria da oraindik hizkuntzak eraginkortasunez irakasteko.

Atzerriko Hizkuntzaren Irakaskuntza eta Ikaskuntzaren DIGI-LINGO Esparrua


“Lau faseak” berriak ez diren arren, esparruaren xedea da atzerriko hizkuntzako irakasleei informazioa eta laguntza ematea, hautatutako “gidalerroak” txertatuz eta horiekin berariazko tresna digitalak erabiliz nola lan egin erakutsiz.

- 1. Plangintza:** Atzerriko Hizkuntzaren Irakaskuntzaren DIGI-LINGO Esparruaren plangintza faseak eskola digitalen plangintzaren balioa azpimarratzen du, bereziki pandemiaren testuinguruan eta ikasteko tresna digitalekin ikastera pasatzean, ikasteko AA barne. Irakasleek ikuspegi desberdinak lehenetsi behar dituzte ikasleen motibazioa areagotzeko. Ikaskuntza pertsonalizatua gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den bitartean, eta ikasleek plangintza prozesuan parte har dezaketen eta hartu behar duten bitartean, azkenean, eskola irakasleak gidatzen jarraitzen du. Irakasleak fokua eta igurikimenak gardenak eta zalantzarik gabeak direla ziurtatu behar du. Oro har, norberaren gogoeta sustatzea ere garrantzitsua da zeregin horren barruan.
- 2. Jokabidea:** Eskolak gauzatzeko, ezinbestekoa da ikaskuntza kolaboratiboa talde txikien bidez (hala nola Teams, Meet edo Zoom) edo ikasgelako taldeen bidez, atzerriko hizkuntzak eraginkortasunez ikasteko. Ikasleak elkarrengandik ikastea dago Atzerriko Hizkuntzaren Irakaskuntzaren DIGI-LINGO Esparruaren erdigunean. Gainera, soilik idatzizko lanetan/produktuetan arreta jartzetik produktu bat idazteko/sortzeko prozesura (sartzera) eta AAK sortutako produktuei buruzko gogoeta egitera igaro da. Hori bat dator hizkuntzen irakaskuntza komunikatiboari buruzko ikuspegiarekin; izan ere, ikuspegi horrek hizkuntzak ikasteko hizkuntza erabili eta elkarreragin/negoziatu behar dela azpimarratzen du. Ikuspegi horrek ikasleen ikasteko eta ulertzeko moduari buruzko ezagutza baliotsuak ematen ditu, ikaskuntza sakonagoa sustatuz. Testuinguru honetan, funtsezkoa da ikasle eta irakasleen arteko harremana sendoa izatea. Garrantzitsuak dira, halaber, ikasleek hizkuntzari buruz dituzten ikuspegiak, motibazioa eta oztopoak barne, bai eta metahizkuntzaren beharra ere. Horrek berarekin dakar ulertzea zer esan nahi duen hizkuntza bat ikasteak, nola hurbildu behar den, zergatik egiten diren jarduera zehatzak, eta kontuan hartu behar izatea ikasi duzun hizkuntzaren aplikazio praktikoak, norberaren egungo gaitasun mailaren arabera. Ikastetxe askotan, ikasleek ez dute horrelako elkarrizketetarako konpromisorik hartzen, eta horrek behar ez den frustrazioa eragin dezake.
- 3. Neurtzea:** Atzerriko Hizkuntzaren Irakaskuntza eta Ikaskuntzaren DIGI-LINGO Esparruaren neurtze faseak prozesuetara bideratutako ebaluazioaren balioa azpimarratzen du, eskoletan "kontrol-puntuak" baliatuz, ikasle batek zer ulertzen duen eta zer gogoeta egiteko gai den jakiteko. Irakasleek atzerriko hizkuntzan entregatutako produktua "motibatzea" zenbat ikasi duten neurtzeko modu eraginkorra da. Betiere, hori egin ahal izateko hizkuntza badute, jakina. Erabateko hasiberrientzat, adibidez, ariketa hori beldurgarria izan daiteke, eskolako hizkuntza erabiltzen uzten ez bazaie. Arestian esan bezala, fokua eta igurikimenak oso argiak izan behar dira, emaitza ere errazago ebaluatu ahal izan dezaten. Oro har, norberaren gogoeta sustatzea ere garrantzitsua da zeregin horren barruan.
- 4. Ebaluatzea:** Atzerriko Hizkuntzaren Irakaskuntza eta Ikaskuntzaren DIGI-LINGO Esparruaren ebaluazio faseak nabarmentzen du ikasleen atzeraelikadura behar dela, arrakasta duten eta arrakastarik ez duten ikaskuntza ikuspegi dagokienez. Atzeraelikadura hori ezinbestekoa da irakasleek eboluzionatu dezaten eta ikastaro hobeak eta pertsonalizatuak gara ditzaten. Helburu hori erdiesteko hainbat jarduera balia daitezke, adibidez: ikasgelako ikasleekin hitz egitea, lan bat egin/ebaluatzeko prozedura bat aplikatu/ikaskuntza ikuspegi bat erabili ondoren, edo atzeraelikadura anonimoak entregatzea.

Fase horiek atzerriko hizkuntzako irakaskuntza digitalean eta birtualean txertatuz, irakasleek ikasleen ikaskuntza esperientziaren eraginkortasuna eta harekiko konpromisoa areagotu dezakete. Esparruak azaltzen du nola lan egin inkestetatik eta DIGI-LINGOren oinarri pedagogikotik eratorritako gidalero multzo hautatu batekin.

DIGI-LINGO gidalerroak literatura azterketarekin lotuta eta atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntzaren DIGI-LINGO esparrua⁶⁵

Gomendioak eta gidalerroak areagotzea



Literatura inkesta zabal batek (ikus “DIGI-LINGO Galdetegietan oinarritutako emaitzak eta gomendioak”) eta ikastetxeetako galdeketetatik jasotako ezagutzek informatuta, hasieran gomendio orokorrak eta herrialde bakoitzerako berariazkoak egin ziren. Horiek, orduan, ikuspegi orokor zehatz batean jaso ziren, eta sei gomendio nagusi bildu ziren.



Gidalerroak egiteko prozesuan, hainbat antolaketa ikuspuntu aztertu ziren, eta, azkenean, erabaki estrategiko bat hartu zen:

gidalerroak berregituratu egin ziren, sei gomendio nagusiekin bat etortzeko. Horretarako, ordea, gomendio batzuen artean gainjartzeak identifikatu ziren, baita elementu batzuk falta zirela ere. Ondorioz, sei gomendioak bitan egituratu ziren, argiagoak izan zitezten eta eragin handiagoa izan zezaten.

A gomendia (Atzerriko hizkuntzako irakasleei garapen profesionalerako aukerak eskaintzea, ikaskuntza erdipresentzialari dagokionez, oro har, eta berariazko online tresna eta plataformei dagokienez) 1., 2. eta 6. gidalerroekin bat dator. B gomendia (Atzerriko hizkuntzako irakasleen gaitasunak garatzea, honako puntu hauek arlo digitalean lantzeko) 3., 4. eta 5. gidalerroekin bat dator. Optimizazio horrek bermatzen du gidalerroak sendoagoak eta eraginkorragoak direla eraginkortasunez aplikatzeko.

Aplikazio proiektuan, 2. emaitzaren izenburua hau da: **“Hizkuntza truke birtualerako irakaskuntza digitalaren gidalerroak eta metodoak”**. Irakasleentzat “nola” jakitea funtsezkoa da, horrek ematen baitio esanahia proiektuari. DIGI-LINGO Ikaskuntza Metodoak atzerriko hizkuntzak irakasteko hurbilketa integrala eskaintzen du, eta plangintza digitalaren, ikaskuntza kolaboratiboaren, prozesuetara bideratutako eta autoerregulatutako ikaskuntzaren, ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan oinarritutako ebaluazioaren eta etengabeko ebaluazioaren garrantzia azpimarratzen du. Lau fase desberdin daude, ikasleentzako ikaskuntza esperientzia eraginkor eta inplikatzailerak bermatzen dutenak.

⁶⁵ Grafikoa Central Denmark Region-en barneko diseinu grafikoko taldearen eskutik.



DIGI-LINGO

www.digi-lingo.eu

Sortzailea:
Europar Batasuna

Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzarekin sortu da. Argitalpen honek soilik egilearen iritzia islatzen ditu, eta Batzordea ezin da hartu erantzuletzat hemen jasotako informazioaren edozein erabilerragatik.